

# salatu egin behar

TXILLARDEGI

«**Matanza de campesinos en el norte de Guatemala**». Horra hor gaurko **egin**-ek (1981-IV-8) eman duen berria. Baina goazen aurrera: «En la aldea de Papa-Chalá... acabó matando a **168 campesinos**, hombres, mujeres y niños... Similares hechos ocurrieron en S.M. Jilotepeque, matando a un número indeterminado de personas. En la aldea Pachay mataron a siete campesinos, cinco de ellos mediante torturas. En las dos primeras semanas de marzo la represión se abatió sobre todas las aldeas del Departamento de Petén... Las matanzas han sido indiscriminadas». Eta aurrerago hau esaten: «Estas actuaciones del Ejército están haciendo que muchos habitantes... de Petén, Chimalteango, San Marcos y Huehuetenango estén **huyendo a México**»...

Eta pentsakor utzi nau berriak; bere horretan irakurle gutxik somatua baitu, nik uste, zapalkuntza berri honetan MAYA-HERRIA dela bitimá, eta ez «nekazari» abstraktu mordo bat bakarrik. Nekazari gisa ere bai, eta nahi diren alderdi guztietatik ere bai: ez dut nik lerro bat ere ida-

tziko Amerika-Erdiko gobernu horien alde. Inola ere ez!

Baina Petén-go «campesino» horiek **mayatarrak** dira, hain zuzen; San Marcos eta Huehuetenango-koak **maya-quiché**-tarrak diren bezala. Hitz batez, mayatarrak denak, nahiz dialektuen arauera, nabarduratan desberdinak.


Mayatar herri errespetagarria, horretara, zanpatuta berriro. Nazio-arteko monopolioek zapantuta, noski; baina, mila trajería jasan ondoren, beste hilkintza mordo bat orain erantsi Hegoaldeko Mayatarren hildo azkengabeen.

Eta Uxmal eta Chichén-Itzá etorri zaizkit gogora, orain dela urte batzu emozioz beterik bisitatuak. Eta egiazko amerikarren oihua entzun dut beriro gaurko albiste triste horren atzean:

¿Solo así he de irme?  
¿como las flores que perecieron?  
¿nada quedará de mi nombre?  
¿nada de mi fama aquí en la tierra?  
¡Al menos flores!  
¡Al menos cantos!

Eta uxmal-en irudiak eta oroitzapenak etorri zaizkit gogora. Eta han hain nabarmen ageri zen kontrastea: zeren «Casa de las Monjas» famatuaren ondoan (mendeetan barrena ahantzia, baina bere edertasunean oraindik dirdaitso), herriko azokan hitz egin bainuen saltzaile apal haiekin; eta beren artean mayas mintzo baitziren, tenplo harrigarri haiek eraiki zituzten arbasoek bezala.

Eta oraindik oroitzen naiz (beste noizpait, oker ez banago, lerro hauetantxe kondatua) gure gidari gazteari egin nion galderaren ondoren, entzun nuen erantzun zirrargarriaz:



— ¿Y cómo decís vosotros en maya «Viva el País Maya libre»?

—Nosotros no decimos eso, señor.

—Pero, tú hablas maya: ¿Cómo lo dirías?

—No lo sé señor.

Mayatar gazte hura, Mérida-n turisten lagutzaille gisa lanean ari ez zen batere zozoa. Ongi zekien muga pasa, eta Hegoaldean (Petén-en, hain zuzen, eta Guatemala-ko eskualdean), herri bera zela; eta dialektuen arteko ñabardura zehatz batzu ere eman zizkidan. Baina mayatarren askatasuna eta batasuna sekula etor zitezkeenik ez zitzaion burutik pasa...

Mayatar herria bi zatitan zatituta dago, bai. Eta orain, **egin-i** esker dakigunez, **Hegoaldeko mayatarren** gainean erori da zapalketa. Guatemalako eskualde horietan, gehien gehienak baitira **quiché-tarrak** (Yukatan-go mayatarren anaia bizkiak, beraz).


Eskualde horretan guztian, hainzuzen, «indioak» dira nagusi (demografiaz, jakina; dituzten txabola-multzoak ez baitira inondik ere nagusien tankerako jauregiak!). Hona hemen, esate baterako, 1960-an ofizialki, eta **Mexiko-ko** aldeari dagokionez, ematen diren zifrak:

**Quintana Roo** (Yukatan-go Ekialdean): %42,94 mayatar

**Campeche**(mendebaldean): %44,15

**Yucatán** (Iparraldean, Mérida barne): %74,47

Zapoteko-tarrak, Otomitarrak, Náhua-tarrak, eta abar, kendüz geró, erdia baino gehiago bide dira México-ko (Iparraldeko) mayatarrak. Hots, indioen kopurua, 1960-an, 3.830.254 iza-



nik, **bi miloi** mayatar daudela esan daiteke, México-ko alderdian. Eta beste hainbeste, gutxi gora-behera, Guatemala-n.

Guatemala-ko Armada-ren zampaketa, beraz, **Mayatarren gain** erori da berriro. Behin eta berriz zanpatua izan den Ameriketako Grezia horrek, inperialisten eta «ladino» salduen zigorraz besterik merezi ez balu bezala.

Besteek ezer esango ez duten segurantzian, beraz, bai internazionalismoz, bai mayatarrak sozialki eta herri gisa zapalduta dauden aldetik, beharrezkoa iruditzen zait euskal ezker abertzaleak hitzez bederen hilketa lotsagarri hauek salatzea. Yukatan-go piramideak eta bati-mendu harrigarriak sekula ahaztuko ez ditugunok, hori eskatzen dugu.

Mayatar herria, nazio-kontzientzia urria izanik ere, **bere nahiaren kontra** baitago erdibiturik. Oso gutxi ezagutzen da, jakina, 1922-an Petén-en gertatu zena (Guatemala aldeko maya-herrian, beraz). Hots, refe-

rendum bat egin zen orduan. Eta Petén-go mayatarrek **México-ko mayatarrekin bat egitea eskatu zuten**. Ordurako, ordea, galdua zuen Guatemala-ko Estatuak Chiapas probintzia; ta «beste puska bat» kentzea gehiegi izango zelakoan, Petén-go mayatarrak isilaraztea erabaki zuten. Eta ...gaur arte! Petén-go «campesino» horiek, beraz, Armadatik ihesi, Mexiko-ra jotzen dutela jakiteak... ez nau batere harritu. Besterik ere ezagutzen baitugu horrelakorik!

Mayatarren zoritxarra salatzea, beraz, ezinbestezko iruditzen zaigu. Eta hau eginez, bestalde (behin bederen!) XVI. mendean arabar hark egin zuen salaketa famatuaren hildotik goaz. Amurrio-ko Diego Landako-k egin baitzuen lehendabizikorik mayatarren kondaira eta Yukatan-go lorien alabantza etsia. Agian lortuko dugu euskaldunok herri miresgarri eta zoritxarreko horren aldeko borrokaren lehen garrasia Europa ustel honetatik guk botatzea.